

Lurra eta askatasuna
Hausnartzen Eguna
apirilak 15
Behorlegin

Irakurtzeko liburua: “Terre et liberté” (Aurélien Berlan, La lenteur).

Laburpena euskaraz: www.argia.eus/argia-astekaria/larrun/2810

Zer da Hausnartzen?

Hausnartzen, herriBiltzaren batzordea da; liburuak irakurri, dokumentalak begiratu edota hitzaldiak entzun ondoren, hauetaz euskaraz hausnartzeko eztabaida publikoak antolatzen ditugu.

Zertarako Hausnartzen?

Hausnartzeko, arazoan erroetara joanez, gure pentsaketak kolokan ezarriz, auto-kritikatuz, deskolonizatuz, inarrosiz, irauliz... eta onduz.

Hausnartzen Eguna, eguna hausnartzen

Elgarrekin hautatutako liburu bat, dokumental bat, hitzaldi bat... bakoitzak irakurtzen, begiratzen edota entzuten du eta ondotik elgarrekin egun batez goiz eta arratsalde sakonki eztabaidatzen dugu (11:00-13:00 eta 15:00-17:00).

Erdaldunak ongi etorriak dira, haatik itzulpengintzaren antolaketaren ardura hartzen dute, lagun itzultzaileak eztabaidara ekarriz.

Etxeko lanak egin ez dituztenak ongi etorriak dira ere.

Harrera 10:30.

Bazkaltzeko, 13:00, Herri Jantegia:

ikus: <https://sites.google.com/view/herribiltza-web-orria/hasiera/herri-jantegiak>

Ongi etorri soilik Herri Jantegira etorri nahi dutenei.

Hausnartzen Egunera edota Herri Jantegira etortzeko, izenak herribiltza@riseup.net helbidean apirilaren 14a baino lehen eman.

Hausnartzen Eguna, egun euritsuan egitea lehenesten dugu. Hortaz, apirilaren 15a eguzkitsua baldin bada, maiatzaren 6a atzeratuko dugu. Atzeratzen badugu, izena eman dutenak apirilaren 14an abisatuko ditugu.

herriBiltza
Hausnartzen